



## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN 2000-KO KONTUAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA**

---

HKEEren Osokoak EAeren Administrazio Orokorraren Kontuaren fiskalizazio txostena oniritzi du, 2000ko urtealdiari dagokiona.

Fiskalizazio txostenean indarreko arautegia zuzentasunez bete delako iritzia jaso da, ondoko salbuespenak azaleratu direla:

- Ondasun zerrendaren zati batean xehekapen banakakotu eza.
- Lanpostuen zerrendak ez du aurrekontuan jasotako lanpostuetakoren bat islatzen.
- Irakaslegoaren lanpostu zerrendak ez zaizkie ikastetxeen beharrezaneiei egokitzen.
- Elkarrekiko gaudimen-sozietate baten eragiketen birfinkapena, aurrekontuan finkatutako mugaz gaineratik.

Autonomia Erkidegoaren Kontuei dagokienez, HKEEk 1/94 Legegintzazko Dekretuaren babesean Balantzea eta Emaizten Kontua ez direla aurkeztu azaleratu du.

Orobat, erakunde fiskalizatzaileak hainbat akats atzeman ditu kontabilizazio eta kontularitzako irizpideak ezartzean, haiekin bat egiten ez duela; Epaitegiaren irizpideen arabera, diruzaintza gerakin erabilgarria 400.383 mila €koa da.

Aurreko urtealdietan bezala, EAeren Administrazio Orokorraren Kontuak ez ditu Bizkaiko Garraio Partzuergoan inbertsio konpromisoak barne hartzen, 204.344 mila €tan balioztatutakoak.

Finantzari dagokion atalean, bereziki azpimarratzekoa da sarrera arrunten hazkundera (%6,6) gastu arrunten gaineratik (%5,8) eta inbertsioek nabarmen gora egin izana (%15,1).

Gastu eta inbertsioen lurraldearen arabeko destinoari bagagozkio, erakunde fiskalizatzaileak adierazi du lurraldeen arabeko aurrekontuetaraketa egiten bada ere, gerora aurkezten den exekuzioak ez duela irizpide hau barne hartzen. HKEEk aurrekontuaren likidazioa lurraldeka egitea gomendatzen du.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Halabaina, txostenak honen inguruko informazioa ematen du eta ondotik zehaztutako datuak eskaintzen ditu, bai Gobernuaren kontabilitatetik eskuratuak, baita fiskalizazio lanean zehar egindako zuzenketetatik ere.

	% GASTUA GUZTIRA	% INBERTSIOAK
Araba .....	16,1	18,1
Bizkaia .....	47,1	46,1
Gipuzkoa.....	25,5	30,9
Lurraldeka bereizi gabea .....	11,3	4,6